
Ibilbide Orria

Jardueraren aurkezpena

Ibilbide Orri honek mundu birtualean gertatzen diren eta kalte emozionala eta psikologikoa eragin dezaketen portaera kaltegarriak edo iraingarriak esperimentatzean edo ikustean nerabeek erabil ditzaketen estrategiak iradokitzen ditu.

Jokabide horien artean, besteak beste, pertsona baten edo pertsona talde baten aurkako jazarpena, larderia, umiliazioa eta zirikatzeta daude, testu-mezuen, sare sozialetako argitalpenen, sarean egindako iruzkinen eta komunikazio digitaleko beste modu batzuen bidez egindakoak.

Sarean gertatzen diren portaera desagoki horiek fisikoki jasaten ditugunak bezain errealak eta kaltegarriak izan daitezke.

**Mundu birtualean
gertatzen diren
gertakari kaltegarriak
edo iraingarriak**





Baimenik gabeko sextinga

«WhatsAppez ari nintzen nire laguna-
rekin. Biluzik nengoen argazki bat bi-
daltzeko eskatu zidan. Nik esan nion
ez nintzela eroso sentitzen, baina
berak behin eta berriz eskatu zidan,
eta, azkenean, amore eman nuen,
eta toplessean nengoen argazki bat
bidali nion. Biharamunean, argazkia
bere lagun batzuekin partekatu zue-
la konturatu nintzen, nire baimenik
gabe. Erabat lotsatuta nago, eta umi-
liatuta sentitzen naiz».



Zer da?

Norbaiten eduki sexualeko argazkiak edo
bideoak zabaltzea da, haren baimenik gabe.

Hori egitea delitu izan daiteke?

Honako hauetan dago jasota:

- K.P.-ko 197. artikulua: sarbide eta intert-
zeptatze ez-zilegia; IKTen bidez sekretuak
aurkitzean eta agertzean datza.
- K.P.-ko 189. artikulua: haur-pornografia-
rekin lotutako delitua.



Sextortsioa

«Sexualki esplizitua zen argazki bat bidali nion Internetez lagun bati. Gero, nire lagunak mehatxu egin zidan, eta esan zidan horrelako argazki gehiago bidali ezean argazkia publikatuko zuela eta beste batzuekin partekatuko zuela. Beldur nintzen nire argazkia zabalduko ote zen, eta amore eman nuen. Egoeraren kontrola galdu nuen, eta nire laguna dirua eskatzen hasi zit-zaidan, argazkiak Interneten ez argitaratzeko. Harrapatuta sentitzen naiz, larri eta beldurtuta».



Zer da?

Eduki sexualeko irudiak edo bideoak legez kontra edo eragindako pertsonaren baimenik gabe lortu eta horiek argitaratzeko mehatxuaren bidez egiten den sextortsioa da.

Hori egitea delitu izan daiteke?

Honako hauetan dago jasota:

– K.P.-ko 169. artikulua eta hurr. eta 172. artikulua eta hurr.: mehatxuak eta derri-gortzeak, IKTen bidez pertsonaren borondatearen aurka, beldurragatik edo presioagatik egindakoak barne.



Ziberjazarpena edo cyberbullyinga

«Selfie bat argitaratu nuen Instagramen, eta nire lagunak erantzun positibo asko jaso nituen, baina erabiltzaile ezezagun baten iruzkin mingarri batzuk ere jaso nituen. Erabiltzaile ezezaguna iruzkin iraingarri eta krudelak argitaratzen hasi zen argazkian, nire itxura fisikoaz eta nortasunaz. Minduta eta irainduta sentitu nintzen, eta horiek ezabatzen eta erabiltzailea blokeatzen saiatu nintzen, baina erabiltzaile horrek kontu faltsuak sortzen ditu niri jazartzen eta nirekin sartzen jarraitzeko. Gero eta urduriago eta estresatuago nago».



Zer da?

Sare sozialen, berehalako mezularitzaren, posta elektronikoaren edo beste bitarteko digital batzuen bidez egiten den jazarpena, zirikatzea edo larderia da. Sexu-izaera izan dezake edo ez.

Hori egitea delitu izan daiteke?

Honako hauetan dago jasota:

- K.P.-ko 172. ter artikulua: IKTen bitartez egindako jazarpena.
- K.P.-ko 173. artikulua: tratu apalgarria IKTen bitartez.
- K.P.-ko 197. artikulua: sarbide eta interzeptatze ez-zilegia; IKTen bidez sekretuak aurkitzea eta agertzea.
- K.P.-ko 205. artikulua eta hurr.: ohorearen kontrakoak, irainak eta kalumniak.



Jokabide kaltegarriak bultzatzea

«Duela hilabete batzuk oso triste eta bakarrik sentitzen hasi nintzen. Ikas-kide batzuen bidez, jakin nuen bazela pertsona bat, hobeto sentitzeko geure burua nola lesionatu irakasten zuena sareetan. Autolesio horiek oso arinak ziren hasiera batean, baina pixkanaka, pertsona horrek ematen zituen aholkuak gero eta bortitza goak ziren, eta geure buruaz beste egiteko moduari buruzko argibide zehatzak ematera ere iritsi zen. Nahastuta eta larrituta nago ikusi dudanagatik».



Zer da?

Sare sozialak eta bitarteko digitalak norberarentzat edo beste batzuentzat erasokorrak, bortitzak edo kaltegarriak diren portaerak sustatzeko erabiltzean datza.

Hori egitea delitu izan daiteke?

Haurrak eta Nerabeak Babesteko Lege Organikoak egindako aldaketarekin, delitu gisa jasotzen da autolesioa eta suizidioa bultzatzea:

- 143 bis artikulua. Adingabeen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen suizidioa bultzatzea, sustatzea edo eragitea.
- 156 ter art. Adingabeen edo desgaitasuna izanik babes berezia behar duten pertsonen autolesioa bultzatzea, sustatzea edo eragitea.



Bikote barneko indarkeria

«Duela hilabete gutxi hasi ginen elkarrekin. Hasieran, gustura geundela zirudien, baina, denborak aurrera egin ahala, nire bikotekidea gero eta kontrolatzaileagoa eta jeloskorragoa izaten hasi zen. Egun batean, nire lagunekin batera agertzen nintzen argazki bat argitaratu nuen Instagramen, eta berehala hasi zitzaidan mezuak bidaltzen, esanez beste batzuekin maite-jolasetan nenbilela eta argazkia desagokia zela. Zapuztuta eta nahastuta sentitu nintzen, baina lasaitzen saiatu nintzen, eta ez zela egia azaldu nion. Baina horrek gauzak okertu zituen. Sareetan partekatzen nituen gauzak kontrolatzen hasi zen, eta berehala erantzuten ez badiot, haserretu egiten da eta ez naizela leiala leporatzen dit. Harrapatuta eta ikaratuta sentitzen naiz».



Zer da?

Internet eta sare sozialak bikotekidea edo bikotekide ohi bat kontrolatzeko, jazartzeko, xantaia egiteko edo umiliatzeko erabiltzea da.

Hori egitea delitu izan daiteke?

Honako hauetan dago jasota:

- K.P.ko 172. ter eta hurr.: IKTen bitartez egindako jazarpena.
- K.P.-ko 197. artikulua: sarbide eta interzeptatze ez-zilegia; IKTen bidez sekretuak aurkitzea eta agertzea.
- K.P.-ko 205. artikulua eta hurr.: ohorearen kontrakoak, irainak eta kalumniak.
- K.P.-ko 263. artikulua eta hurr., eta 625.1. artikulua: datu eta sistemetako interferentzia, biktimaren datuak kaltetzeko edo aldatzeko.

**Zer egin behar dut
horrelako gertaera
baten lekuko banaiz?**





Nerabe baten aurkako ekintza kaltegarri edo iraingarri bat ikusi duzu sarean?

Informa zaitez

- » Identifikatu zer ari den gertatzen. Informazio baliagarria eskuratu dezakezu hainbat erakunde eta elkarteren web-guneetan: AEPD, INCIBE eta Pantallas Amigas, besteak beste.

Arbuiatu eta adierazi plataforman

- » Ez birbidali edo partekatu mezua. Gertaera kritikatzeko duten mezuak babestuta ditzakezu.
- » Adierazi gertatutakoa posta, iruzkina edo argazkia argitaratu den plataforman... oso erraza da!

Eskaini laguntza

- » Jarri harremanetan kaltea jasan duten pertsonekin, eta eskaini zure laguntza. Entzun, ahaldundu eta sustatu haien autobabesa.
- » Gertaera publiko bat bada (adibidez, erraz eskuratzeko moduko Instagrameko profil bateko argitalpen bat), **pantailaren argazkiak egin**, edo eskatu argazkiak egiteko gertatutakoaren ondorioak jasan dituztenei.

Jakinarazi heldu bati

- » Gogorra izan daiteke horrelako gertaeren lekuko izatea eta horien aurrean erantzun bat ematea. Eskatu laguntza konfiantzazko heldu bati, nola jokatu erabakitzeko.
- » Eman gertatutakoaren berri babesa eta laguntza eskaintzen dituen erakunde bati.

**Zer egin behar
dugu gertaera
jakinarazteko?**



Gertaera jakinarazteko, arlo horretan ardura duen norbaiti gertatutakoaren berri eman behar zaio, hau da, etorkizunean antzeko egoerei aurrea har diezaiekeen edo egoera hori bizi izan duena babes dezakeen norbaiti.



Iradokituako loturak eta aliabideak

Ertzaintza

<https://www.ertzaintza.euskadi.eus/lfr/web/ertzaintza/-/donde-denunciar-datos-interes?...>

Fiskaltza

<https://www.fiscal.es/web/fiscal/-/comunidad-autonoma-del-pais-vasco?assetCategoryId=36724>

Guardia Zibila

<https://www.guardiacivil.es/va/servicios/violenciadegeneroyabusoamenores/index.html>

Datuak Babesteko Espainiako Agentzia (AEPD)

<https://www.aepd.es/es/canalprioritario>
<https://www.aepd.es/es/preguntas-frecuentes/15-redes-sociales-difusion-ilegitima-contenidos-sensibles>
<https://www.aepd.es/es/documento/responsabilidad-menores-padres-madres.pdf>

Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritza

<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/>
Telefonoa: 016
WhatsApp: 600 000 016
Posta elektronikoa: 016-online@igualdad.gob.es

Emakunde

<https://www.emakunde.euskadi.eus/argitalpenak/>

Incibe: Internet Segura for Kids

<https://www.is4k.es/ayuda>
<https://www.is4k.es/necesitas-saber/sexting>
<https://www.is4k.es/necesitas-saber/ciberacoso-escolar>
<https://www.is4k.es/redes-sociales-en-la-adolescencia>
<https://www.is4k.es/blog/como-actuar-cuando-una-foto-se-ha-descontrolado>
<https://www.is4k.es/de-utilidad/recursos/recursos-para-trabajar-en-el-aula> y <https://www.is4k.es/jovenes>

Pantallas Amigas


<https://www.pantallasamigas.net/contacto/>
<https://www.pantallasamigas.net/centro-de-ayuda-en-internet-cai-lineas-de-ayuda/>
<https://www.pantallasamigas.net/denuncia-online-org/> y <https://denuncia-online.org/>
<https://www.pantallasamigas.net/ayuda-para-madres-y-padres/>
<https://www.pantallasamigas.net/apoyo-a-centros-escolares/>

Injuve

<http://www.injuve.es/conocenos/contactar>
<http://www.injuve.es/conocenos/red-de-centros-de-informacion-juvenil>

Gazteaukera

<https://www.gazteaukera.euskadi.eus/gazteen-euskal-behatokia/hasiera/>





Ibilbide orri honetako audioak eta bideoa erreproduzitzeko zailtasunen bat baduzu,
ikus-entzunezko eduki osoa eskura dezakezu hurrengo estekaren bidez:
<https://www.youtube.com/playlist?list=PL88cW1C0GxkO83N4TynDhOahtLsF9znCu>

**Egin dezagun
zerbait!**



Sarean ekintza kaltegarri edo iraingarriren baten lekuko banaiz, honako hauek egiteko konpromisoa hartzen dut...

Adibideak

Informa zaitez

- » Informazioa bilatzea eta gutxienez laguntza-baliabide berri bati buruz ikastea (adib.: AEPD)

Arbuiatu eta adierazi plataforman

- » IGn eduki kaltegarria duen post bat gutxienez jakinaraztea
- » IGko kontu toxiko bat gutxienez jarraitzeari uztea

Eskaini laguntza

- » Sarean eraso bat jasotzen duen norbaiti laguntzeko mezu bat idaztea

Jakinarazi heldu bati

- » Ekintza kaltegarri baten berri emateko gomendatzea norbaiti